

*“Proiektu propioagaz nabilen lehenengo aldia da; neure letrak abestuko ditut”*

**Irati Bilbao Gandarias**  
Musikeneko ikaslea • 14



**Uda honetan eskolako jantokian sukaldea jartzearen alde agertu da Atxondoko Udala**

**Atxondo** | Bertan Bertokoako kideek jakitera eman dutenez, udalak diru partida bat onartu du sukaldea jartzeko • 10



**Teilaturik bako etxea**

Durangaldeko Eustrak pistako taldeak puntako txirrindulariak ditu. Berrizko belodromoa da euren etxea, baina, sarritan, ezin dira han entrenatu, zorua busti egoten delako. Belodromoa estaltzea, gastua barik, inbertsioa izan daitekeela uste dute. • 2-3

LEHIOR ELORRIAGA

**Odi Bakar enpresa itxita, 36 langile kalean geldituko direla dio LABek**

**Iurreta** | Urtarrilean enpresak likidazio eskaera eta lantalde osorako kaleratze espedientea aurkeztu zituela azaldu du LABek. “Batezbeste, enpresak 20.000 euro zor dizkio behargin bakoitzari”, dio LABek. • 7





## “Gastu bat baino, Berrizen dagoen belodromoa estaltzea inbertsio bat izan daiteke”

Zorua busti badago, pistako ziklistak ezin izaten dira Berrizko belodromoan entrenatu. Azpiegitura estali batek mota askotako onurak ekarri ditzakeela uste dute

**TXIRRINDULARITZA** • JOSEBA DERTEANO  
Eustrak taldeko Ana Usabiaga, Irene Usabiaga, Illart Zuazubiskar eta Ziortza Isasi goi mailan dabil-tzan pistako txirrindulariak dira eta munduko onenekin lehiatzen dira. Markel Rodriguez Duranguesa taldean dabilen promesa gaztea da. Berrizko belodromoan batu dira bos-tak, baina ez entrenatzeko, sarritan zergatik ezin diren entrenatu kon-tatzeko baino. Oraintsu, Bizkaiko Federazioak mahai gainean jarri du euren egoera, eta sinadura bilketa abiatu du belodromoa estaltzeko es-katuz. Izan ere, zorua busti edo umel dagoenean txirrindulariak ezin dira pistara irten, arriskutsu dagoelako. Eta neguan askotan gertatzen den kasua da.

Neguan izaten da pistako denboral-dia, zorua bustita egoteko probabili-taterik handiena dagoenean.

**Illart Zuazubiskar:** Nazioarteko da-tak urte osoan dira, baina hitzor-durik garrantzitsuenak, mundu-ko kopa zein txapelketa, neguan izaten dira. Urrian hasi eta otsai-lera bitartean, inguru horretan.

**Ana Usabiaga:** Entrenamendu espe-zifikoren bat egin gura baduzu, belodromoa lehor egon behar da. Euria egiten duenean, ezinezkoa da entrenatzea.

**I.Z.:** Neguan, kontua ez da euria egitea edo ez egitea bakarrik.

Gauean hotz egin badu eta zorua umel badago, alferrik da. Bihur-gune bat lehortuko da beharbada, baina itzala dagoen beste alde hori, ez. Neguan, egunen %90ean belodromoa bustita egoten da. Zeozer entrenatu daiteke, baina ez munduko kopako hitzordu ba-tek eskatzen duen adina.

**Ziortza Isasi:** Gainera, udazkena heltzen denean, irailetik aurrera, ondoko zuhaitzetako hostoak pis-tara jausten hasten dira. Orduan,

“**“Kontua ez da bakarrik euria egitea edo ez. Gauetan hotz egiten badu, zorua umel dago eta alferrik da”**

ILLART ZUAZUBISKAR

erratza hartu, ez labantzeko or-tozik jarri, bihurtzeko goragunera igo eta garbitzen aritzen gara. Iaz, bizikletan nenbilela, orbela zapaldu eta jausi egin nin-tzen. Baina ez zait niri bakarrik gertatu; bat baino gehiago jausi da belodromoan, busti edo umel zegoelako.

**Horrek entrenamenduen planifika-zioa zailtzen du?**

**I.Z.:** Bai. Normalean, pertsona bat

bertaratzen da, belodromoa zelan dagoen ikusteko. Edozelan ere, entrenamendu espezifikoa di-tugunok ezin gara egon egunero belodromoaren egoeraren zain.

**A.U.:** Errepidean entrenamendu alternatiboak egitea geratzen zai-gu. Belodromoan ezin bada, beste irtenbideren bat bilatu beharra dago. Ezin gaitzke entrenatu barik geratu. Errepideak bere mu-gak ditu, baina serie mota batzuk egiteko aukera eskaintzen du.

**Irene Usabiaga:** Belodromoan egin ohi ditugun serie bakoitzaren denborak eta intentsitate mailak kalkulatu eta errepidean horiek kontuan hartuta ibiltzen gara, baina ez da berdina.

**Markel, zu zelan aritzen zara?**

**Markel Rodriguez:** Antzera. Orain-tsu, esaterako, pistako Espainiako kopako proba batean aritu naiz eta ezin izan ditut gura nituen entrenamendu denak egin. Gure esku ez dagoen muga bat da.

**Horrek guztiak desanimoa eragiten dizue?**

**A.U.:** Apur bat desesperagarria da.

**I.Z.:** Ni aurten sarritan joan naiz Donostiako belodromora, bai-na ez da berdin entrenatzen. Hemen, Berrizen, belodromoa geuretzat da eksklusiboki, eta Markelegaz edo beste gazteekin kointziditzen badugu, badakite guk daukagula lehentasuna eta



Ezkerretik eskumara: Ziortza Isasi Cristobal (Elorrio, 1995), Irene Usabiaga

“**Errepidean, entrenamendu alternatiboak egiten ditugu; ezin gara entrenatu barik egon”**

ANA USABIAGA

gure eskakizunetara moldatzen dira. Baina Donostian ez da hori gertatzen.

**Berrizen ezin denean, Donostiako be-lodromoa da alternatiba?**

**A.U.:** Tafallakoa ere hor dago.

**I.Z.:** Nik uste dut hemen gauden denok gurago dugula Tafallako be-







Alberdi (Ordizia, 1993), Ana Usabiaga Alberdi (Ordizia, 1990), Illart Zuazubiskar Gallastegi (Abadiño, 1990) eta Markel Rodríguez Olguin (Abadiño, 2001)

lodromoa. Baina ordu bi behar dira hara joateko. Eta beste bi handik bueltatzeko.

**Eta, Donostian, Anoetako belodromoa zelako alternatiba da?**

**I.Z.:** Aurten egon naizen baten, Frantziako 30 bat txirrindulari zebiltzan entrenatzen, eta aldatu

egin behar izan nuen entrenamendua. Eurek ere berdin ordaindu zuten sarrera, eta, azkenean, beste erremediorik ez eta egoera horretara moldatu behar izan nuen. Horrez gain, arratsaldeko ordu batzuetan Gipuzkoako Federazio-koak ibili daitezke bakarrik.

**A.U.:** Tafallan ez da arazo hori egoten. Jende gutxi ibiltzen da. Baina urrun dagoela da kontua.

**I.U.:** Donostiakoan dagoen beste traba bat da ekitaldiak eta kontzertuak egoten direla. Bertaraino joan eta itxita aurkitu dugu inoiz!

**A.U.:** Zinemaldia badago, astebete

itxita; Realeko bazkideen batzarra badago, beste astebete itxita; eta antzerakoak.

“**Udazkenean, hostoak jausten dira pistara eta hor ibiltzen gara erratza hartu eta goragunea garbitzen**”

ZIORTSA ISASI

“**Pista estaliak mota askotako onurak izan ditzake, ez pistako ziklistentzat bakarrik**”

IRENE USABIAGA

**I.Z.:** Niri honako hau ere gertatu izan zait aurtten: belodromora deitu zabalik dagoen jakiteko, baietz erantzun, bertaratu eta, bai, belodromoa zabalik aurkitu dut, baina pista bera itxita. Eta ikasten duzu espezifikoki galdetu behar dela pista zabalik dagoen ala ez.

**Eustrak taldeagaz munduko onenen kontra lehiatzen zarete. Aurkariekin alderatuta, desabantailan zaudetela sentitzen duzue?**

**U.Z.:** Herrialde bakoitzak bere errealitatea du. Badira talde eta selekzio batzuk oso indartsuak direnak, baliabide asko dituztenak, eta dena behar da euren mailara heltzeko. Beste herrialde batzuetan, euren kontuak dituzte.

**Berrizko belodromoa estaltzeak zer onura ekarri ditzake?**

**I.U.:** Azpiegitura estali batek mota askotako onurak ekarri ditzake. Ez pistan gabiltzan ziklistentzat bakarrik.

**A.U.:** Esaterako, zikloturistentzat ere bai. Negua denean edo egurraldiak laguntzen ez duenean,

zikloturistak belodromora joaten dira. Donostiara bai behintzat. Belodromoa alternatiba bat izaten da eurentzat. Hemen inguruan, txirrindularitzarako afizio handia dago eta eurentzat ere erabilgarria izango litzateke.

**I.U.:** Beste toki batzuetan ikusten da kirol ekitaldiak edo bestelakoak antolatzeko erabili daitekeela horrelako azpiegitura bat, estalita badago. Ez du zertan izan pistako txirrindularitzara begirako zerbait. Beste mota bateko etekina ere atera dakioko.

**A.U.:** Guretzat onura litzateke, jakina. Begira, Eustrak goi mailako taldea da eta bertako txirrindulariek munduko txapelketarik garrantzitsuenetan parte hartzen dute. Besteak beste, Leire Olaberria, Tania Calvo eta Hodei Mazkarian txirrindulariak aritu izan dira talde honetan. Baina, sarritan, pista-ko lorpenek ez dute merezi zuten bisibilitaterik eduki. Jendeak ez ditu pistako txirrindulariak ezagutzen, nahiz eta maila gorenean ibili. Bestalde, azpiegitura aproposak ez izateak zaildu egiten du gazteak pistara erakartzea. Ahalegin bateratu bategaz askoren onura lortu daitekeela uste dugu. Gastu bat baino, belodromoa estaltzea inbertsio moduan ikusi daiteke.

**Errepideko lasterketetan ere ibiltzen zarete. Pistan ikasitakoa baliagarria zaizue?**

**A.U.:** Bai, balio du. Hainbat alderditan, gainera.

**I.Z.:** Errepidean, askotan, txirrindulariak elkarren ondoan joaten dira, elkarrengandik oso gertu, eta erorikoen edo ezusteko egoeren aurrean erreakzionatzeko abilidadea irabazi dudala konturatu naiz. Hori pistan egindako lanari esker da. Bat-bateko egoera horiek gertatzen direnean, segituan konturatzen zara nor den pistan ibilitakoa eta nor ez.

# Amankomunazgotik "beharrezko" ikusten dute Bizkaiko Aldundiagaz lankidetza proiektu bat gauzatzea

Hurrengo legegintzaldian Berrizko belodromoaren gaia "mahai gainean" egongo dela azaldu du Aitor Lopez Durangoko Merinaldeko Amankomunazgoko presidentek

**ERAKUNDEAK • J.D.**

Bizkaiko Txirrindularitza Federazioak [www.change.org](http://www.change.org) webgunean abiatu duen sinadura bilketak 1.452 lagunen babesia izan du orain arte. Berrizko belodromoa estaltzeko eskatzen du ekimenak, eta, gutxienez, 1.500 sinadurara heltzea du helburu,

**Agus Ruiz: "Gaur egun pistako Bizkaiko txapelketak Tafallan antolatu behar ditugu"**

zerrenda hori erakundeengana bideratzeko gero. Izan ere, belodromoa estali barik egoteak zuzenean eragiten die. "Bizkaiko txapelketak Tafallan antolatu behar ditugu", adierazi du Agus Ruiz federazioko presidentek. Horrez gainera, belodromoa gazteak errepiderako trebatze-

ko toki proposa dela uste du. "Belodromoa txirrindularitza eskola bat da", Ruizen ustetan.

Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentek gogoratu du belodromoaren jabe den Mankomunitatea "erakunde txikia" dela eta ezin dituela proiektu guztiak aldi berean garatu. Hala ere, hurrengo legegintzaldian belodromoaren gaia "mahai gainean" egongo dela azaldu du. "Estaltzeak zer suposatu dezakeen aztertu beharko dugu,

bai inbertsio aldetik, bai gerora horrelako instalazio bat kudeatzeak suposatu dezakeenagatik. Horretarako, txirrindularitza federazioagaz eta bestelako agenteekin biltzeko prest gaudela", adierazi du.

Proiektua aurrera eramateko, Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetza "beharrezkoa" iruditzen zaio. "Bestalde, belodromoa Berrizen dago eta Berrizko Udalak ez du Mankomunitateko kirol instalazioetan parte hartzen. Berrizko Udalaren inplikazioa ere aztertu beharko litzateke", azaldu du.

Oro har, "zuhurtziaz eta erantzukizunez" jokatu behar dela dio, eta gogoratu du belodromorako ematen duten diru-laguntza "%100 baino gehiago" igo dutela.

**Aitor Lopez: "Erakunde txikia da Amankomunazgoa eta ezin ditu proiektu guztiak aldi berean garatu"**



## Ikerketa soziopolitikoan inkestatu dituzten erdiek ez dakite estazioan bost etxe dorre eraikiko direla

Galdetutakoen %79,7k diote badutela informazioa planari buruz, baina gutxiago dira informazio zehatza dutenak



Inkestatuen %55,8k baietz erantzun dute, badakitela bost etxe dorre eraikitzea aurreikusita dagoela. %45,5ek badakitela babeseko etxeak ere badaudela planean.

### DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Gizaker enpresak urrian landutako ikerketa soziopolitikoaren emaitza batzuk argitaratu zituen udalak, joan zen astean, prentsa ohar bidez. ANBOTOk txosten osoa eskuratu du, eta badira beste datu aipagarri batzuk ere. Adibidez, inkestatuen erdiek ez dakite estazioko eremuan bost etxe dorre eraikitzea aurreikusita dagoela. %55,8k baietz erantzun dute, badakitela bost bloke eraikitzeke plana duela jaur-laritzak, trenaren lurperatzearen gastua kubritzeko helburuz.

Informazio zehatza hainbestek eduki ez arren, inkestatuen %79,7k esan dute estazioko proiektu orokorrari buruz zerbait entzun dutela, gaiak herrian duen eraginaren erakusle. Gizakerrek 600 pertsona-

ren artean egin zuen inkesta, eta horien arabera, eremua birmoldatzeko beharrezkoa 5,42 puntukoa da, 10 punturainoko tartean.

Planagaz lotuta, kontsultarako proposatutako galdera errespetatzea eskatu dio asteon Erabaki plataformak udalari, bestela "3.000

**Kontsultarako proposatutako galdera errespetatzea eskatu dio asteon Erabakik udalari**

sinatzaile engainatzea" litzatekeelako bere ustez. Gainera, galdeketa-aren prozesua "maiatzeko hauteskundeen osterarte luzatzen" ibiltzea egotzi dio gobernu taldeari.

### Parkingak erabiltzea

Ikerketaren emaitzetan, durangarren arazo nagusiak aire kutsadura eta aparkaleku falta direla ondorioztatu da. Bigarren gai honen aurrean, Landako Gune eta tren geltokiko parkingetako 576 plazak sustatzea proposatu du Herriaren Eskubideak. Julian Rios bozeramailearen ustez, arazoari irtenbidea emateko "ezinbestekoa" litzateke aparkaleku hauek sustatzea, erabileragatik diru-laguntzak eskaintzea eta ordutegiak hobetzea.

### EH Bilduk, notarik onena

Bestalde, ikerketaren emaitzek diote EAJk irabaziko lituzkeela hauteskundeak, eta zinegotzi kopurua errepikatuko litzatekeela (EAJk 8, EH Bilduk 7, Herriaren

Eskubideak 3, PSE-EEk 2 eta PPk 1). Legealdiko balorazio lege, ostera, Aitziber Irigoras alkate jeltzaleak 55,72ko datua lortu du; EH Bilduko Dani Maetzuk 22,75; PSE-EEko Pilar Riosek 20,48; Herriaren Eskubideko Julian Riosek 14,30 eta PPko Francisco Garatek 6,42. Hala ere, alderdien kasuan, EH Bilduk lortu du notarik onena: 10etik 5,88. EAJri 5,73ko nota eman diote, Herriaren Eskubideari 5,47koa, PSE-EEri 4,54koa eta PPri 2,87koa.

Hauteskundeei begira, EH Bilduren boto emaileak dira errepikatzeke prest dauden fideleak (%79,8). EAJkoak gertu daude (%73,6), eta atzerago daude PPkoak (%66,7), Herriaren Eskubidekoak (%56), eta PSE-EEkoak (%46,7).



## Ibaizabal ikastolako 5 ikasle Startinnova lehiaketako finalera sailkatu dira

### DURANGO • M.O.

Ibaizabal ikastolako Amaia Ibarzabal, Mariane Oyarzabal, Mirari Urizar, Oihane Ozamiz eta Paule Egilior Startinnova lehiaketako finalera sailkatu dira. Gazteen ekintzailatza sustatzea helburu duen programan, hainbat ikastetxetako 66 talde aurkeztu dira, eta lan idatziaren aurkezpenaren lehen postua lortu du Ibaizabaleko taldeak.

Familia osoen beharrezan kontuan hartuta, aisialdi, formakuntza zein aholkularitza zerbitzua eskaintzeko ideia sortu dute ikasleek.

## Suediako hamar ikastetxetako zuzendariak Jesuitak ikastetxea bisitatu dute

### DURANGO • M.O.

Euskalit eta SIQ (Swedish Institute for Quality) erakundeek ekimenez, Suediako hamar ikastetxetako zuzendariak erdidegoko ikastetxe batzuek bisitatu dituzte. Horietako bat San Jose Jesuitak ikastetxea izan da, 20 urtez kalitate programetan dabilena eta 2013an kalitatezko Urrezko Q saria jaso zuena. Atzo goizean egon ziren suediarrek Durangon, eta ikastetxeko lan pedagogikoa ezagutu zuten.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2019ko otsailaren 8a  
17. urtea - 749. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri. **Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Karolina Suarez Borges.  
**Maketazioa:** Bea Sierrasesumaga Guezuraga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



# Martxoaren 8ko asanbladak argazki jendetsua atera gura du domekan, Durangoko emakume guztiak grebara deitzeko

Andereak elkarteak emakumeen aurkako bortizkeriaren kontra antolatu duen flashmob-aren ostean, greba feminista bultzatzeko argazkia aterako dute



Durangoko M8 asanbladaren argazkia.

**DURANGO • JONE GUENETXEA**  
Martxoaren 8a gerturatzen ari da eta Durangaldeko hainbat herritan asanbladak martxan dira. Durangon hiru batzar antolatu dituzte dagoeneko Andragunean. Prentsa ohar bidez azaldu dutenez, "emakume andana" joan da egindako

batzarretara. Hurrengo bilerak otsailaren 20an eta martxoaren 3an izango direla aurreratu du koordinazio taldeak.  
Bestalde, domeka honetan, Andereak elkarteak emakumeen aurkako bortizkeriaren kontra antolatutako flashmob-aren ostean

**Hurrengo batzarrak otsailaren 20an eta martxoaren 3an izango dira**

argazki jendetsua aterako dute, grebari bultzada emateko.  
Durangoko asanbladan lantaldeak finkatuta dauden arren, parte hartu gura duten guztientzat ateak oraindik zabalik daudela gaineratu dute. Joan zen barikuan, kartelak jarri zituzten herrian, grebaren be-

rri emateko. "Hasi da, beraz, greba feministaren irudia Durangoko kaleak hartzen", azaldu dute asanbladakoek. Bestalde, joan zen ba-

**Txokolatada informatiboa, hainbat kolektibotako 40 emakume batu ziren**

**Durangoko asanbladan lantaldeak finkatuta dauden arren, ateak zabalik daude parte hartzeko**

rikuan txokolatada informatiboa antolatu zuten. Batzar horretan, ordura arte agertu ez ziren kolektiboetako 40 emakume bildu ziren. Lanerako prest dagoena [grebafeministadurango@gmail.com](mailto:grebafeministadurango@gmail.com) helbidean jarri daiteke harremanetan asanbladako kideekin.

**Durangaldea martxan**  
Zaldibarko asanbladako kideak otsailaren 24an batuko dira, 18:00etan, liburutegi zaharrean. Zornotzan oster, otsailaren 20ra-ko egin dute deialdia, 19:30ean, Zelaietako auditorioan.

## Udalak Durangoko merkatu plaza "abandonatuta" daukala salatu dute ekoizleek elkarretaratze batez

2012an udalean onartutako arautegia ez dela betetzen ohartarazi dute zapatuetan merkatuan egoten diren ekoizleek



Domekan, Berdeago azokaren kanpoaldean elkartu ziren baserritarrak. **EH BILDU**

tuaren alde ezer egiten. Ez dio arautegiari kasurik egiten", esan dute. Horren ondorioz, oraindik ere birsaltzaileak lasai asko joaten dira merkatura, debekatua duten arren.

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**  
Domekan kontzentrazioa egin zuten merkatu plazako ekoizleek, Berdeago azoka aprobetxatuta. Udalak plaza "guztiz abandonatuta" daukala salatu zuten. Argiak eta suaren aurkako sistema bat ezartzeaz aparte, instalazioetan bestelako hobekuntzarik ez dela egin diote, ezta pintadak garbitu ere. Gainera, 2012an onartutako plazaren funtzionamenduari buruzko arautegia ez dela betetzen ohartarazi dute. "Udalak ez du merka-

**Oraindik ere, birsaltzaileak lasai asko joaten dira merkatura, debekatua duten arren**

Neurriak eskatu dituzte. "Plaza gainbeheran doa, bai ekoizleen eta baita kontsumitzaileen aldetik ere. Argi dugu bultzada bat behar duela. Plazara ekoizle berriak erakartzeko, zerbait behar dugu".  
Azken lau urteetan, udala eta baserritarrak ez dira elkartu, eta EH Bilduk batzar horretara deitzeko mozioa aurkeztu zuen osoko bilkuran. Herriaren Eskubideak babestu egin zuen, baina EAJ eta PSE-EEren ordezkio mozioa onartu zen, PPK lagunduta, arautegia egungo beharretarako berrizteari buruzkoa.

**"Plaza gainbeheran doa, bai ekoizleen eta baita kontsumitzaileen aldetik ere"**



# Otxandioko pilotalekua berritzeko, ia 300.000 euroko laguntza jaso dute Eusko Jaurlaritzatik

Diru horregaz, legegintzaldi honetako helburu nagusienetakoa gauzatu ahal izango du Otxandioko Udalak



Plazako pilotalekua Otxandioko udaletxearen aurrean dago.

**OTXANDIO** • JOSEBA DERTEANO

Plazako pilotalekua, herriko erdiguneko osagai garrantzitsua dena, zaharkituta geratu da, baina Otxandioko Udalak berriztu ahal izango du. Izan ere, Eusko Jaurlaritzatik jakinarazi diete ia 300.000 euroko laguntza jasoko dutela zeregin horretarako. Diru-laguntza datozen hiru urteetan zehar jasoko dute: urte bakoitzean herena, 100.000 euro inguru.

Pilotalekua eraberrituko duten arren, ez diote gaur egungo itxura aldatuko. Zorua eta hormak kon-

**Pilotalekuari ez diote itxura aldatuko; besteak beste, zorua eta hormak konponduko dituzte**

pondu eta bestelako lan batzuk egingo dituzte, bai pilotalekuan, bai plazako zati batean. Orain bi-hiru urte, plazako beste zati handi bat eraberritu zuten, udaletxearen aurretik frontoirantz doana,

hain zuzen ere. Beraz, lan hauek amaitzean herriguneko erdigune osoa konponduta eta eraberrituta egongo da.

**Indusketa arkeologikoak**

Baina lan hauei ekin aurretik, indusketa arkeologikoak egingo

**2001ean egindako ikerketak erakutsi zuen plaza inguruan baliozko aztarnak egon daitezkeela**

dituzte eremu horretan, plazako beste zatian egin zuten moduan. Izan ere, 2001ean herrigune osoan zehar ikerketa historiko-arkeologiko bat gauzatu zuten, eta azterketa horrek erakutsi zuen plaza inguruan baliozko aztarnak egon daitezkeela.

Beraz, zorua jaso, azpian zer dagoen ikertu eta dena dokumentatuko dute, beste ezertan hasi aurretik. Indusketa arkeologikoak egiteko, udalak hainbat proposamen ditu mahai gainean, eta esleipena egitea falta da.

**Iurretan argiteria berrituko dute hainbat kaletan, Bidebarrietan hasita**

**IURRETA** • AITZIBER BASAURI

Herriko argiteria berrituko dute hainbat kale eta auzotan, Bidebarrietan hasita. Kontsumo baxuko led argiteria jarriko dute, udal arduradunek azaldu dutenez. Guztira, zortzi kale-argi aldatuko dituzte, eta berri bat ezarri. Lan horretarako, 7.500 euro erabiliko dituzte.

**Gaztañatzara doan tunelean ere beste hiru kale-argi jarriko dituzte**

Beste kale eta auzoei dago-kenez, Larrakozelai futbol zelai inguruan hiru kale-argi jarriko dituzte. Gaztañatzako argiteria berrituko dute, eta bertara doan tunelean ere beste hiru kale-argi jarriko dituzte. Santa Mañan eta Mañarikun kontsumo baxuko led argiteria jarriko dute eta instalazio elektrikoa berritu egingo dute.

**ZORNOTZA** • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako EH Bilduk udal hauteskunde programa "sendo eta erakar-garria" osatu gura du herritarren laguntzagaz, eta hori gorpuzteko, ibilbide orria plazaratu du, ohar

**Lehenengo fasean, arloka, gaiak adituak direnei parte hartzeko eskaintza egingo diete**

batean jakinarazi dutenez. Lehen fasean, arloka, gaian adituak direnei edo interes berezia erakusten dutenei parte hartzeko eskaintza egingo diete. Denen artean, talde bat osatu eta hainbat dokumentu landuko dituzte. Bigarren fasean,

## Zornotzako EH Bilduk herritarrekin landuko du hauteskunde programa

Zirriborroa prest dutenean, herri bileran aurkeztuko dute; bilerako ekarpenak jaso ostean, prest izango dute udal hauteskundeetara begirako behin betiko Herri Programa

proposamenak bateratu, Herri Programaren zirriborroa osatu eta herri bilera batean aurkeztuko dute. Herri bilera horretan egindako ekarpenak programan gehitu ostean, behin betiko Herri Programa egingo dute.

Herritarrek bileretan parte hartu dezakete edo iritziak helarazi ditzakete, [zornotza.ehbildu@gmail.com](mailto:zornotza.ehbildu@gmail.com) helbidea elektronikoaren bidez edo Zornotzako EH Bilduren sare sozialak erabilia.



Ander Uriarte alkategaia ezkerrean, EH Bilduko gainerako zinegotziekin.

**Larrea ikastetxean 1.260 euro batu dituzte Sanfilippo gaixotasuna ikertzeko**

**ZORNOTZA** • J.D.

Larrea Herri Ikastetxeko zuzendaritza taldeak eta ikasle, irakasle, eta gurasoek ekimen solidario batean parte hartu zuten urtaril amaieran. Sanfilippo Euskadiko Elkarteak argitaratu duen liburua saldu zuten ikastetxeko aterpean, eta 1.260 euro lortu zituzten. Dirua Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Metabolopatia Sailera bidali dute, Sanfilippo izeneko gaixotasuna sendatzeko ikerketa egiten jarraitu dezaten.



# Iurretako Odi Bakar enpresa itxita, 36 langile kalean geldituko direla salatu du LABek

Negoiazioaren lehen bilera egin dute LABeko hiru delegatuek, enpresaren ordezkariak eta administradore konkurtsalak



Odi Bakarrek langileek kontzentrazioa egin zuten enpresaren aurrean, eguaztenean.

**IURRETA • JONE GUENETXEA**

Urtarrilean, Odi Bakar enpresak likidazio eskaera eta lantalde osorako kaleratze espediente bat tartekatu zituela azaldu du LAB sindikatuak. Eguaztenean, negoziazioaren lehenengo bilera egin zuten sindikatuetakordezkariek (LABen hiru delegatuak), enpresaren ordezkariak eta administradore

konkurtsalak. Bitartean, langileek elkarretaratzea egin zuten.

LAB sindikatuak prentsa oharraren dioenez, Odi Bakarrek Zuzendaritzak enpresa ixtea erabaki du, konkurtsoan urte bat baino gehiago egon ostean. Ekainaren 21ean 15 langile kaleratu zituztela gogoratu du sindikatuak. Xabier Rojo LABeko delegatuak dioenez,

"administradore konkurtsalak konkurtso egoeran zehar etengabe errepikatu eta baieztatu du enpre-

**Langile bakoitzagaz enpresak duen zorra 20.000 eurokoa da batezbeste**

saren etorkizuna ez zegoela kolokan, azkenekoz abenduan". Hala ere, urtarrilean likidazio eskaera eta langile guztientzako kaleratze espediente bat tartekatu dutela azaldu du Rojok. "Aurrera egingo genuela ziorten momentu berean, likidazio eskaera egin zuten", Rojoren berbetan. "36 langile dabilta momentu honetan Odi Bakarren

lanean. 36 langile engainatu egin dituzte. Konkurtsoan eta konkurtsoz sartu baino lehenagotik enpresak langile bakoitzagaz duen zorra 20.000 eurokoa da batezbeste". Rojok azaldu duenez, orain arte enpresak zor dien dirua berreskuratu ko duten esperantzari eusten diote. Hileetan kobratu barik lanera joan direla gogoratu du Rojok. "Enpresak aurrera egingo zuela esaten ziguten eta esperantza hori genuen. Orain,

**Enpresa bideragarria izan dadin, inbertsoreak behar dituztela dio LAB sindikatuak**

**Langileak hileetan kobratu barik lanera joan direla gogoratu du Xabier Rojo LABeko delegatuak**

gure jarrera erabat aldatu da. Gure kabuz pausoak emateko prest gaude".

LABek dioenez, enpresa hau bideragarria izan daiteke, baina, horretarako, inbertsoreak behar dituztela azpimarratu dute. "Lantaldeak argi dauka. Ez gara etsita sentitzen eta aurrera jarraituko dugu. Horretarako, inbertsoreak topatzen ari gara". Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak eta konkurtsoa daraman epaileagaz ere hartu-emanetan jartzeko asmoa dutela gaineratu du Rojok.

## Durangaldeko Bulkada Eguna ospatuko dute Elorrion, Ernaik deituta



Zapatuan egin zuten jaialdiaren aurkezpena, Elorrion.

**DURANGALDEA • M.O.**

Aurten 40 urte bete dira Jarrai jaio zenetik, eta Ernai gazte erakundeak Bulkada berrien garaia da dinamika ipini du martxan. Durangaldeko Bulkada Eguna antolatu dute martxoaren 23rako, Elorrion, "independentzia, sozialismoa eta feminismoaren alde".

Eguno militanteak eta lehenagokoak batzea da asmoa. Sortzaile azoka, bazkaria, kontzertuak... egongo dira. 2002an Elorrion egin zuten Gazte Topagunea, eta lema bera darabilte: *Bide guztiak Elorriora, bide guztiak independentziara*. Aurten, Lemoan izango da Gazte Topagunea.

## Amankomunazgoak 774 laguntza eman ditu gizarte larrialdietarako

Nabarmentzekoa da pentsiodunen eskaerak %35 igo direla iaztik; eskaera guztien %30,4 izan dira

**DURANGALDEA • M.O.**

2018an, Amankomunazgoak 774 laguntza eman zituen gizarte larrialdietarako, iaz baino 7 gehiago. Nabarmentzekoa da pentsiodunen eskaerak %35 igo direla; eskaera

guztien %30,4 izan dira. 737.000 euro erabili dituzte laguntza horiek emateko. Eusko Jaurlaritzak 580.000 euro ipini ditu, baina Amankomunazgoko ordezkarien esanetan, "ez da nahikoa". Horre-

gatik, eskualdeko instituzioak 156.000 euro ipini ditu.

Laguntzen %86,8 etxebizitzako gastuak kubritzeko izan dira: hipoteka, energia, etxetresnak, altzariak... Gainerako %10,2a oinarritzko beharrianetarako izan da. Eskatzaileen %63 emakumeak izan dira, eta %55,4 espainiar nazionalitatekoak.



2017koekin alderatuta, pentsiodunen laguntza eskaerak %35 igo dira.



# "Orokorrean, Abadiñori buruz dagoen ikuspuntua nahiko baikorra da, nagusientzat atseginagoa egin badaiteke ere"

60 urte baino gehiagoko ia 100 abadiñarrek parte hartu dute Abadiño Lagunkoia proiektuaren lehenbiziko fasean; datorren astean hasiko da bigarrena



Amaia Olabarriaga, Jose Mari Macias, Eduardo Gabiria eta Iñaki Pagonabarraga.

## ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Abadiño nagusientzat herri atseginagoa izateko asmoagaz, Abadiño Lagunkoia proiektua jarri zuten martxan 2017ko ekainean. Azken hilabeteetan saioak egin ostean, batzar horietatik ateratako ondorioak biltzen dituen diagnostikoa aurkeztu zuten joan den otsailaren 7an. 60

### Nagusientzat Abadiño atseginago bat lortzeko, 140 proposamen bildu dituzte diagnostikoan

urtetik gorako ia 100 lagunek parte hartu dute saio hauetan. Lagun horietako lau dira Amaia Olabarriaga, Jose Mari Macias, Eduardo Gabiria eta Iñaki Pagonabarraga, eta ekimenak edukitako harrera ona nabarmendu dute. "Garrantzi berezia eman gura izan diogu diagnostikoa bera egiteko bideari, ez bakarrik

emaitzari", azaldu du Olabarriagak. Zaintza eta parte-hartzaileen artean sorturiko giro ona izan da horretarako gakoa, Pagonabarragaren esanetan: "Saioen tarteetan atseden hartzen genuen, kafea hartzeko eta gailetak jateko". Zortzi lantaldetan banatuta, nagusiek euren kezka eta beharrianak

zerrendatzen eta horiei buruz eztabaidatzen aritu dira. Besteak beste, hirigintzaz, garraiobideez eta etxebizitzaz jardun dira. Hala ere, dena ez dela kritika izan azpimarratu dute. "Orokorrean, Abadiñori buruz dagoen ikuspuntua nahiko

### Bigarren fasea otsailaren 21ean abiatuko da, 18:00etan, Errota kultur etxeko saioagaz

baikorra da, eta hobetzeko gauzak dauden arren, jendea pozik bizi da bertan", adierazi du Gabiriak.

### Bigarren fasea

Parte hartu duten lagunen artean, 140 proposamenetik gora jaso dituzte diagnostikoan. Otsailaren 21ean abiatuko da bigarren fasea. "Errota polita izango da, izan ere, oraingo honetan guk geuk hartuko dugu prozesua dinamizatzearen ardura", azaldu du Gabiriak. "Formakuntza jaso dugu, eta gogotsu gaude praktikan jartzeko", gehitu dio Macias. Jasotako ideiak proposamen egingarri bilakatzea da fase honen helburua. Hurrengo deialdia otsailaren 21ean dute, 18:00etan, Errota kultur etxean.

## Elkartasun tonbolako lokalera sartu eta hainbat opari lapurtu dituzte

Asteburuan sartu dira lokalera lapurtzera, zapatu gauean. Antolatzaileek opariak banatuko dituztela adierazi dute

## ZALDIBAR • A.M.

Asteburuan izandako elkartasun ekimena zapuzten saiatu ziren otsailaren 9ko gauean. Lokalera sartu, eta banatzekoak ziren opari asko ostu zituzten. Galera handiak izan arren, sarituei opariak banatuko dizkietela adierazi dute antolatzaileek. "Kolpe latza izan da, baina aurrera egin behar dugu. Elkartasun tonbolaren helburua da garrantzitsuenak", adierazi zuten sare sozialetan. Aurtengo tonbolan 7.928 euro bildu dituzte. Zaldibartarren artean haserrea nabaritu da lapurretaren ondorioz, izan ere,

herrian sustraiturik dagoen ekimena da elkartasun tonbola. Hain zuzen ere, 37 urte daramatzate antolatzaileek toallak, mahai-zapiak

### 37 urte daramatzate boluntarioek izarak eta mahai-zapiak josten, proiektuak finantzatzeko

eta izarak josten. Urteotan irabazitako dirua herriko misiolarien proiektuak finantzatzeko erabili izan da.



Horrela geratu zen lokala lapurretaren ostean.



**MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO**  
Kiroldegi berria zelan hornitu jakiteko, prozesu parte-hartzaile bat garatu du udalak herritarrekin. Guztira, 45 lagunek parte hartu dute, eta 13 proposamen jaso dituzte. Bideragarritasun tekniko eta antzerako irizpideak kontuan hartuta, talde teknikoak erabilera bakoitza zein espaziotan kokatu zehaztu du. Azalpen horiek eguaztenean egindako herri batzarrean eman zituzten. Orain, gela bakoitza hornitzea falta da eta herritarrek erabakiko dute, bozketa bidez, gela bakoitza hornitzera zenbat diru bideratu.

Frontoiko lehen solairuko aurreneko gelan erabilera anitzeko gunea egitea proposatu du talde teknikoak. Hurrengo gelan ma-

**Makinadun gimnasioa ez da bozketan sartzen; gune hori 10.000 eurogaz hornituko dute**

**Bozketak erabilera anitzeko gelei eta aterpean sortuko den guneari eragiten die**

kinadun gimnasioa joango da eta azkenekoan, sasoi bateko liburutegian, erabilera anitzeko beste gela bat. Funtzio anitzeko gelek erabilera mota bi izango dituzte: kirol orokorretarako eta kirol alternati-

# Mañariko kiroldegi berria zelan hornituko duten erabakitzeke, bozketa egingo dute eguenera arte

Herritarrengandik jasotako proposamenetatik abiatuta, espazioen banaketa eginda dago. Orain gune horiek hornitzea falta da eta herritarrek bozketa bidez erabili dezakete gela bakoitzean diru gehiago edo gutxiago inbertitzea



Eguaztenean herri batzar bat egin zuten azalpen denak emateko.

boetarako erabiliko dira. Azkenik, frontoiaren kanpoaldean sortu duten aterpea umeentzako aisaldi jardueretarako erabiliko da.

**Lehentasunak bozkatu**  
Udalak 25.000 euro jarriko ditu proiektu honetarako. 10.000 euro makinadun gimnasio hornitzeko

erabiliko dira eta 5.000 euro, ego- kitzapen orokorretarako. Beraz, 10.000 euro geratzen dira erabilera anitzeko gelak eta aterpea hor-

nitzeko. Bozketa espazio horien ingurukoa izango da. Izan ere, gune horietan ez dute diru kopuru berdina inbertituko: 5.000, 2.500,

**Bozketan, 5.000, 2.500, 1.500 eta 1.000 euroko diru atalak nora bideratu markatu daiteke**

**Modu bi daude bozkatzeko: eskuorria betetzea edo webguneko galdetegi digitalari erantzutea**

1.500 edo 1.000 euro gastatuko dituzte gune bakoitzean. Horrela, herritarrek lehentasunak erabaki ditzakete. Diru kopuru bakoitza zertarako erabiltzea komeni den bozkatu dezakete.

Bozketak otsailaren 21era arte iraungo du, eta prozesuarekiko interesa dutela erakutsi duten herritarrek parte hartu dezakete. Modu bi daude parte hartzeko: eskuorria bete eta herrian jarri dituzten buzoietan sartzea edo galdetegi digital bat betetzea.

## Matzagabarrena, Errotatxo, Abeletxe eta eskolan dauden jolasguneak hobetu ditu Berrizko Udalak

2018ko aurrekontu parte-hartzaileetan, herritarrek erabaki zuten umeentzako txintxaunak konpondu egin behar zirela



Hainbat jolasgune konpondu dituzte.

**BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR**  
Berrizko Udalak Matzagabarrenan, Errotatxon, Abeletxen eta eskolako jolasgunean dauden umeentzako gunek konpondu ditu. Udalak ohar bidez jakitera eman duenez,

**Lan hauekin, lau jolasguneak umeentzat seguruagoak izatea gura izan du Berrizko Udalak**

lurzorua eta jolasteko gunea hondatuta zeuden, eta, beraz, horiek aldatu dituzte. Gainera, bertan zeuden txintxaunak ere ordezkatu dituzte.

Bestalde, umeentzako gune erakargarriagoak egiteko asmoz, eraberritu dituzten jolasguneak

margotu egin dituzte. Lan hauekin, lau jolasguneak umeentzat seguruagoak izatea gura izan du Berrizko Udalak. "Konponketa hauek eginda, umeentzako jolasguneak

**Berrizko Udalak 44.000 euroko diru atala erabili du herriko jolasguneak konpontzeko asmoz**

askoz ere seguruagoak dira orain", adierazi dute oharrean.

**Aurrekontu parte-hartzaileak**  
Iazko udaberrian, Berrizko Udalak batzarrak egin zituen herritarrekin, aurrekontu parte-hartzaileetara bideratutako 150.000 euroekin zer egin erabakitzeke. Bertan, diru atal bat umeen txintxaun gunek konpontzeko erabiltzea erabaki zuten herritarrek.

Hori horrela, udalak 44.000 euroko diru atala erabili du lanok egiteko.



**Korrikara begira ekimenak prestatzen hasteko batzartzen hasi dira Mallabian**

**MALLABIA • J.D.**  
Euskararen aldeko Korrika herri lasterketa erraldoiaren 21. aldia apirilaren 13an igaroko da Mallabitik, arratsaldean. Orain urte bi egin zuten moduan,

*Eguaztenean egindako herri batzarrean Korrikarako egitaraua izan zuten berba*

herrian taldea sortu dute, egun horren harira zein aurreko asteetan zehar ekitaldiak antolatzeko. Eguaztenean liburutegian egindako herri batzarrera hainbat herritar batu zen helburu horrekin.

**Garraiorako Bat txartel orokorra udal liburutegian eskuratu daiteke**

**IZURTZA • J.D.**  
Garraiorako Bat txartelak zenbait aukera ematen ditu. Txartel espezializatuak (nagusientzat, familia ugariantzat...) Euskotrenek Gasteizen duen bulegoan atera behar dira, baina txartel orokorra Izurtzako udal liburutegian eskuratu daiteke, dau denak agortu arte. Txartelak 3 euro balio du, saldik barik. Edozein izurtzarrek atera dezake eta, gero, pertsona batek baino gehiagok erabili dezake bidaia bera egiterakoan.

**Herriko tabernan komun berriak egingo dituzte, irisgarritasun aldetik hobetzeko**

**GARAI • M.O.**  
Herriko tabernan obretan dabil-tza urtarilaz geroztik, komun berriak instalatzeko. Orain arte, behealdean zeuden komunak, eta eskaileretatik bajatu beharra zegoen. Irisgarritasuna hobetzeko asmoz, taberna dagoen solairuan eraikiko dituzte komun berriak, medikuak kontsulta pasatzen zuen gunean. Obrak 38.000 euroko aurrekontua dauka, eta beste hamaibost bat egun beharko dituzte. Taberna zabalik dago, hala ere.

# Berton Bertokoari erantzunez, udan jantokian sukaldea jartzearen alde agertu da Atxondoko Udala

Aste honetan, plateraz josita daude Apatako kaleak; ekimenaren asmoa sukaldearen aldarria kalera ateratzea izan da



Umeek margotutako platerak jarri dituzte Apatako kaleetan.

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**  
Joan zen astean, Atxondoko Ikasleen Guraso Elkarte eta Berton Bertokoako ordezkariak Atxondoko EH Bilduko eta EAJko kideekin batu ziren. Batzarrean, 2019ko udan jantokian sukaldea eraikitze-ko eskaera egin zieten alderdi biei, eta hauek eskariagaz bat egin zuten. "Gainera, 2019ko aurrekontuetan sukaldea eraikitze partida bat jartzea ere erabaki dute", esan dute Berton Bertokoako kideek. Orain pare bat urte, Berton Bertokoako dinamika eta Durangalde-

ko lau ikastetxe publikotako Eskola kontseiluak sukaldea jartzeko eskaria egin zioten Hezkuntza Sailari. Aurreko ikasturtean, Hezkuntza Sailagaz harremanetan jarri ziren, eta maiatzean eskoletako sukaldeen diseinua eta proiektua egiteko konpromisoa hartu zuten.

*Aurrekontuetan udalak sukaldea eraikitze partida bat jartzea erabaki duela jakinarazi dute*

*Eskola publikoei eta bertako gurasoen eskariei "oztoporik ez jartzeko" eskatu dute*

Orain, Atxondoko Udalak jantokian sukaldea jartzearen eskaria onartu du. Bestalde, Berton Bertokoako dinamika kideek jakitera eman dute Durangaldeak proiektuagaz bat

egiten duela eta momentu honetan Hezkuntza Sailaren baiezkoa baino ez dela falta. Hori horrela, eskola publikoak eta bertako gurasoek dituzten eskariak "bigarren maila batean ez uzteko" eta "oztoporik ez jartzeko" eskatu diote Hezkuntza Sailari.

**Herria plateraz josita**  
Aste honetan, plateraz josita dago Atxondo. Ekimen honeguz, sukaldearen aldarria herrira atera gura izan dute guraso elkarte eta Berton Bertokoako kideek.

## Elorrioko ikasle eta gurasoentzat ekimenak antolatze asmoz, Lau Eskola elkarte sortu dute

Elorri, Herri Eskolako, Lourdesko Ama ikastetxeko, Txintxirri Ikastolako eta Maria Bitarteko ikastetxeko gurasoek guraso elkarte soru dute, udalaren laguntzagaz

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**  
Indarrak batuta, Elorrioko Herri Eskolako, Lourdesko Ama ikastetxeko, Txintxirri Ikastolako eta Maria Bitarteko ikastetxeko gurasoek Lau Eskola guraso elkarte sortu dute, Elorrioko Udalaren laguntzagaz. Elorri lau hezkuntza eredu daude eta eredu bakoitzak bere jatorri, historia eta ezaugarri propioak ditu. Orain, lau ikastetxeetako, lau hezkuntza

ereduetako gurasoak hainbat ekimen garatzen hasi dira, elkarlanean. Herriko ikasle eta gurasoen artean denetarikoko ekintzak

*Otsailaren 24an den artean Txitxiburduntzi Eguna ospatuko dutela esan dute antolatzaileek*

egitea da Elorri sortu berri duten elkarte honen asmoa. "Azken urteotan, Elorrioko Udalak akuilu lanak eginda eta diruz lagunduta, guztion artean hainbat ekimen garatzen hasi gara eta, bide horretan sakontzeko asmoz, Elorrioko ikastetxeetako gurasoek Lau Eskola taldea sortu dugu berriki", adierazi dute elkarte kideek ohar baten bidez. Horrez gainera, otsailaren 24an den

artean Txitxiburduntzi Eguna ospatuko dutela jakitera eman dute. Herriko plazan batu ostean, Elorrioko natur bideetatik ibilal-ditxo bat egingo dute eta, gero, txorizoa erre eta hamaiketako egingo dute.

*Lau Eskola elkarte kideek ekintzetan parte hartzeko deia egin diete herritarrei*

Bestalde, Lau Eskolako guraso elkarte kideek dei egin diete Elorrioko guraso eta ikasle guztiei, urtean zehar egingo dituzten ekimenetan parte hartzera animatu daitezen.





Cesar Estornes

## Hareek denporak!

# Durangaldeko mendien maitale ziren bilbotarrak

Bilboko Club Deportivo taldearen memoriak jasotzen ditu bere blogean Cesar Estornesek, eta Durangon ateratako argazki hau bertan topatu zuen Jose Mari Uriarte historialariak. 1914an mendi taldea sortu zuten, eta bilbotar haiek Durangaldeko mendien maitale ere baziren. "Untzillatzen 941 metroetatik ageri den panorama eder eta zabala begiztatzen egon gara", kontatzen dute kronika batean.

Argazkia 1933ko martxokoa da, Untzillatxera eginiko beste irteera batekoa. Urkiolako Bizkarra hotelean bazkaldu zuten, eta bazkalostean Gasteizko autobusean bajatu ziren Durangora.

Autobus horrek dagoeneko eraitsita dagoen tren geltokian zeukan geralekua 1970era arte, Uriarteren esanetan. Leku beretik irteten ziren Bergara eta Arrasaterako autobusak, baita Arrazolarako pullmana ere. **M.O.**

## Politikan

Dani  
Maeztu Perez  
EH Bildu



### Azalpenak noizko?

Inbidiaz gogoratzen dut Madrile-ra joan nintzen azkeneko aldia eta Lavapies auzoan dagoen San Fernandoko merkatuan egon nintzen. Auzoko eta tokiko merkataritzaren motorea zen merkaturia, elikadura eta ostalaritza uztartuz asteburuetan, hainbat ekimen antolatuz eta auzoari sekulako bizia emanez. Kontran, Durangora etorrira, penaz ikusten dut gure merkaturia, tokiko merkataritzaren motorea izan daitekeena hiltzen ari baita, denboraren poderioz eta udal gobernuak edozein ekimen interesgarri antolatzeko orduan duen moteltasunagatik. NEIKER enpresa publikoaren laguntza baliagarria izan ahal zitzaigun merkaturia berpizteko. Enpresa publiko horren webgunean esaten duen bezala, "soluzio berritzaileak eta transferigarriak garatzen dituzte, gure nekazaritzako elikaduraren sektoreari balioa emateko". Primeran, ezta? Baina legealdi osoan zehar ez dugu diru publikoarekin ordaintzen dugun enpresa honen berririk izan. Baina, aste honetan bai. Udal hauteskundeetarako 3 hilabete geratzen direnean, NEIKER-eko zuzendariak mezu bat bidali die durangar batzuei, baina ez batzar publiko batera deituz, Durangoko PNV-ren hauteskunde kanpainaren barnean kokatzen dan batzar batera baizik. Bere lanorduetan (enpresa publikoan), bere kargua erabilita eta bere posta elektronikoko korporatiboa erabiliz, alderdiarentzat kanpaina eginez. Azalpenen zain nago, uste baitut, estatu espainoleko beste leku batzuetan ez bezala, Euzkadin sektore publikoko lanpostuak gaitasun eta ahalmen profesionalaren arabera lortzen direla. Hurrengo udal hauteskundeetan alderdiaren Durangoko hautagaiak ondo dakienez, gurean, lanpostuak alderdiaren karnetaren arabera lortzen ez direlako. Azalpenen zain nago.

## Durangaldea asteen

### Top 30 Meme Lehiaketa jarri du martxan Berbaro elkarteak, urteurrenaren harira

**Durango I** Berbaro elkarteak hainbat ekintza antolatuko ditu 30. urteurrena ospatzeko. Otsailaren 18an hasiko den Top 30 Meme Lehiaketa da bat. Berbaroko kideek esan dutenez, astero gai bat emango dute eta gai horri lotutako memeak egin beharko dira. Aste amaieran, 30 memorik onenak argitaratuko dituzte eta onenak saria izango du. Instagram, facebook eta twitter bidez, zein whatsapp, telegram edo emailaz parte hartu daiteke.

### Aramotzeko jolas parkearen eraikuntza "ekintza elektorala" ez izatea gura du Herriak

**Durango I** Aramotzeko jolas parkea bizkorrago eraikitzea eskatu du Herria elkarteak, udan bertan jolastu ahal izateko. Horrez gain, "guztia ekintza elektoral bat" ez izateko esperantza agertu du, hauteskundeak laster direlako. Bestalde, parkea eraikitzeko eredu biren artean aukeratzea proposatu zion udalak elkarteari, eta elkarteak bigarrenaren alde egin du, "osoagoa" delakoan. Hala ere, lehenengo ereduaren zegoen tirolina txertatzea eskatu du.

### Udalari eta Anbotoko Azpiko Damak elkarteari aitortza egin die Biocrucesek

**Abadiño I** Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketako Institutuak Haur Onkologiako ikerketa arloko lankidetzat hartu ditu Abadiño-ko Udala eta Anboto Azpiko Damak elkarteak, eta aitortza egin die. Javier Crespo Gizarte Ekintza arloko zinegotziak aitortza "harro" egoteko modukoa dela esan du, eta herritarrei eskerrak eman dizkie 2018an egindako diru bilketetan parte hartzeagatik. Guztira, 9.983,21 euro batu zituzten.



### Santa Ageda koplak abesten batutako dirua Axpen dauden errefuxiatuei eman diete

**Atxondo I** Apatako San Pedro Apostoluaren parrokiako abesbatza-ko kideak eta hainbat herritar Santa Ageda koplak abesten ibili ziren Atxondon joan zen asteburuan. Sei bat orduz Apatako herrigunean eta inguruko baserrietan kantuan ibili ostean, 1.301 euro batu zituztela esan du urtero koplak abestera irteten den Xabier Azkarate atxondarrak.

Batutako dirua herrian hartu dituzten eta Axpeko aterpetxean dauden bost errefuxiatuei eman dietela jakitera eman du Xabier Azkaratek.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9 - IURRETA - Izen-abizenak - telefonoa - helbidea - Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

## OSASYN - ETXEA BELAR-DENDA eta DIETETIKA

40 urte baino gehiagoko esperientzia

**PISUA KONTROLATZEKO NOVALINE METODOA  
INFORMAZIO-BISITA, DOAN**

**+  
OPARIA**

**AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA**

Ermodo kalea, 13 (Madalena galeriak) - DURANGO  
Tel.: ☎688 730 694 - osasunetxea@hotmail.com - f Herboristeria Osasun Etxea

Salón de belleza *M<sup>a</sup> Jesús Luque*  
UNISEX ILE-APAINDEGIA

✉ Kurutziaga kalea, 9 - DURANGO ☎ 946 81 43 89

## BODEGUILLA

**TRANA-MATIENA**  
Tel.: 94 681 43 85



## ‘Elisa y Marcela’

ANTZERKIA

DURANGO : Otsailaren 16an

### Denboran aurreratutako maitasun istorio bat

A Panaderia antzerki taldeak (Galizia) benetako gertaera baten bertsio lotsagabe eta komikoa jarriko du oholtza gainean, zapatuan, 20:00etan, San Agustin kulturgunean: *Elisa y Marcela*. Denboran aurreratutako maitasun istorioa

kontatzen du komedia musikal honek, eta egiazkoak asmakizuna ematen du. Coruñan (Galizia) gertatu zen, 1901ean: San Xurxoko eliza batean emakume bi elkarrengaz ezkondu ziren, bata gizon jantzita. Polizia jazarpena,

diligentzian egindako ihesaldiak, identitate aldaketak eta albiste manipulatutak batzen dituen antzezlan da.

*Elisa y Marcela* obrak bost Maria Casares sari irabazi ditu, eta 2018an publikoaren saria lortu zuen, bai Robadavian, bai Fetegán. Umorea, musika eta jolasa baliatuz, eta antzerki kodeekin jolastuz, konpromisoaren eta aldarrikapenaren aldeko apustu garbia egiten du A Panaderiak.



### Elorrioko gaztetxea

OTSAILAK 16

**Umeentzat tailerrak + murala**, 11:30etan.

**Omenaldia**, 14:00etan, San Josen. **Bazkaria** EEC-n 14:30etan. Tiketak ohiko lekuetan

**Argazkia**, 17:30etan.

**Talka**, 18:00etan.

**Kontzertuak: McOnak + Mugi Panderoa**, 23:00etan.

### Hiltegixe Gaztetxea

OTSAILAK 15

**‘Hiltegixe, 1999tik 2019ra’ kafe tertulia**, 18:30etan.

**Ogitartekoak+ sangria**, 21:00etan. 22:30etan, **Jam Session akustikoa**

OTSAILAK 16

**Bazkari herrikoia**, 15:00etan, gaztetxean.

**Poteo musikatua** 18:30etan.

**Kontzertuak: Kutre Band+Etsipen+Dj Huici +Los Moths** 22:30etan. Ordu alaiak: 04:00-05:00. 07:00etan, argazkia.

OTSAILAK 22

**Kontzertua: The North+Eta Zer+ Zain +Hyssopus**, 22:30etan.

## Urteurrena ospatuko dute Berrizko Hiltegixen eta Elorrioko Gaztetxean

**JAIK I** Elorrioko Gaztetxeak 31 urte beteko ditu asteburuan, eta, urteurrena ospatzeko, ekitaldi sorta antolatu du biharko. Berrizko Hiltegixe gaztetxeok, bestalde, asteburu osora zabaldutako egitaraua prestatu dute. Urteurren borobila dute Berrizen.

20 urte bete dira herriko hainbat gaztek Hiltegixe okupatu zutela.

Besteak beste, kontzertuak, umeentzako tailerrak, herri bazkaria eta kafe tertulia antolatu dituzte datozen egunetarako Elorrión eta Berrizen. Familia argazkirako tartea ere hartuko dute.

### Otsailaren 15ean

**ABADIÑO berbaldiak** Errefuxiatuen egoera eta Hemendik Harantz elkarrearen lana, 19:00etan, Txanporta kultur etxean.

**DURANGO musika** **Jam session**, 21:30etan, Plateruena kafe antzokian.

**ELORRIO jaialdia** **Euskal Mendizaletasunaren XXIII. Gala**, 19:00etan, Arriola Antzokian. Erdellak antolatutako ekitaldi berezia. Ondoren, saritutakoekin afaria.

**IURRETA berbaldia** **‘Nola gairitu heriotza bat?’ (gaztelaniaz)**, 17:30etan, Nagusien Egoitzan. Durangoko Amankomunazgoaren Adinekoen Zerbitzuak antolatuta.

**IURRETA bakarriketak** **‘Mujer vasca soltera busca’ (Alazne Etxebarria)**, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Anderebidek antolatuta.

### Otsailaren 16an

**ABADIÑO jaiak** **XXXI. Burduntziko Bildots Txapelketa**, 10:00etan. Txakoli dastaketa. **Bildots bazkaria**, 14:00etan, probalekuan.

**BERRIZ antzerkia** **‘7ak bat’ (Atx Teatro)**, 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

**DURANGO antzerkia** **‘Elisa y Marcela’ (A Panadaria - Galizia)**, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

**DURANGO taileera** **Surrandiak: maskara eta dantza tailerra**, 11:00etatik 13:30era, Merkatu plazan. Kriskitin dantza taldeak antolatuta.

**ELORRIO dantza** **Akadantz-XI. Kale Dantzen Lehiaketa**, 16:00etatik 19:00etara, Arriola antzokian.





**IURRETA irteera**  
**Seguran bisita gidatua eta sagardotegian bazkaria**, Anderebide elkarteak antolatuta. Maspen, 09:30ean.

**ZORNOTZA antzerkia**  
**‘Max txikia’ (Arena en los Bolsillos)**, 17:00etan eta 19:00etan, Zornotza Aretoan.

## Otsailaren 17an

**DURANGO antzerkia**  
**‘Oceanus’ (Baraka Teatro - Madrid)**, 12:00etan, 17:30ean eta 18:30ean, San Agustin kulturgunean.

## Otsailaren 19an

**DURANGO berbaldia**  
**‘Palestinako gatazkaren jatorriak’**. Hizlaria: **Anis Hawari**, 18:15ean, Nagusien Egoitzan. Bizidun elkarteak antolatuta.

**DURANGO balleta**  
**‘Don Quixote’**. **Balleta HDan zuzenean**. 20:15ean, Zugaza Zineman.

**ZORNOTZA zinekluba**  
**‘Femininoan’ zikloa: ‘Viaje al cuarto de una madre’**, 20:15ean, Zornotza Aretoan.

## Otsailaren 21ean

**DURANGO musika**  
**Dj Suavesito**, 22:00etan, Txoria Nuen Maite tabernan. Jan and Jai egitaraua.

**DURANGO antzerki-zirkoa**  
**Boluda kabareta**, 21:00etan, Plateruena kafe antzokian.

## Otsailaren 22an

**ELORRIO dantza-zirkoa**  
**‘Neanderthal’ (David Vento & CIA)**, 20:30ean, Arriola antzokian.

**IURRETA ipuinak**  
**Izaskun Mujika ipuin kontalaria**, 17:30ean (3-4 urte, nagusi batez lagundurik) eta 18:00etan (5 urtetik gorakoak), herri bibliotekan.



Otsailak 15 · 21:30ean  
**JAM SESSION**  
Kontzertua



Apirilak 12 · 22:00etan  
**HEZURBELTZAK**  
Kontzertua

www.plateruena.eus

**PLATERUENA**  
Kafe Antzokia  
Landako Hiribidea, 4A DURANGO  
Tel.: 946 030 300  
jatebxea@plateruena.net

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

**IURRETA ipuinak**  
**‘Matamala’ (Pablo Albo)**, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Helduentzako saioa.

**ZORNOTZA antzerkia**  
**‘Babesleku arrotzak eta animalia bakartien hotzak’ (RUBIK Theater)**, 20:15ean, Zornotza Aretoan.

## Otsailaren 23an

**ABADIÑO tailerra**  
**Autodefentsa feminista**, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara, Txanporta kultur etxean. Euskaraz. Izena emateko: [berdintasuna@abadiano.org](mailto:berdintasuna@abadiano.org) e-postan edo 94 466 94 20 telefonora deituta.

## Otsailaren 28ra arte

**BERRIZ erakusketa**  
**‘Pisuak eta neurriak’**. Berrizko Kultur Etxean, barikuetan, 18:30etik 20:30era eta kultur jardueren ordutegian.

**ELORRIO erakusketa**  
**‘Woman’**. **Maria Otxandiano**. Argazkiak. Iturri kultur etxean, 09:30etik 21:00etara.

## Martxoaren 3ra arte

**DURANGO erakusketa**  
**‘Bay Sala (1913-1995)’**. Durangoko Arte eta Historia Musean.

## Martxoaren 8tik 10era

**DURANGALDEA irteera**  
**Eski irteera Formigalera**. Izena emateko, martxoaren 1era arte: [alluitzmenditaldea@gmail.com](mailto:alluitzmenditaldea@gmail.com). Abadiñoko Alluitz eta lurretako Zaldai mendi taldeek antolatuta.

## Otsailean eta martxoan

**DURANGO erakusketa**  
**‘ERRegistruak. Buruek, zuluak eta espilluek’**. **Amaia Asategi Iturraldere** lana. Arteka liburu-dendan.



# Zinea

**:: Berriz KULTUR ETXEA**  
· **Dragon Ball Super: Broly**  
barikua 15: 18:15 (euskaraz)  
domeka 17: 17:00 (euskaraz)

**:: Durango ZUGAZA**  
· **Alita. Angel de Combate**  
barikua 15: 19:30/22:00  
zapatua 16: 17:00/19:30/22:30  
domeka 17: 16:30/19:00/21:30  
astelehena 18: 18:30/21:00  
martitzena 19: 20:00  
eguaztena 20: 20:00

· **Perdiendo el Este**  
barikua 15: 19:30/22:00  
zapatua 16: 18:00/20:15/22:30  
domeka 17: 16:30/19:00/21:30  
astelehena 18: 18:30/21:00  
martitzena 19: 20:00  
eguaztena 20: 20:00

· **Jefa por accidente**  
barikua 15: 19:30/22:00  
zapatua 16: 19:30/22:30  
domeka 17: 19:00/21:30  
astelehena 18: 18:30/21:00  
martitzena 19: 20:00  
· **La Lego Pelicula 2**  
zapatua 16: 17:00  
domeka 17: 16:30

**:: Elorrio ARRIOLA**  
· **La tercera esposa**  
zapatua 16: 22:00  
domeka 17: 20:00  
astelehena 18: 20:00  
· **Asterix: Edade Magikoaren Sekretua**  
domeka 17: 17:00

**:: Zornotza ARETOA**  
· **Green Book**  
barikua 15: 20:15  
zapatua 16: 22:00  
domeka 17: 20:00  
astelehena 18: 20:15  
· **Las aventuras del pequeño Colon**  
domeka 17: 17:00



# “Musikari profesionala izateko prestatzen naute Musikenen; nire bizitzako abenturarik handiena da”

Platerueneko Jam Sessionean parte hartuko du gaur Irati Bilbao abeslari durangarrak, eta berak idatzitako letrak entzungo dira emanaldiko kantuetan



**Irati Bilbao Gandarias**  
Jazz kantuko ikaslea  
Musikenen

**Durango | 1992**

## Ze aukera daude jazz kantuan formakuntza izateko?

Gauza berezi bat gertatzen da musika modernoagaz. Goi mailako ikasketak daude, baina ez dago horra heltzeko prestakuntzarik. Denbora gutxian aldatuko dela uste dut; badago eskaria eta horrek balioa du. Oraingoz, eskola pribatuak baino ez daude irakasle pribatuekin.

## Badu garrantzirik hizkuntzak jazza abestean?

Eduki beharko luke. Abeslari moduan, esaten zabilzanaren ehuneko handi bat da hizkuntza. Esaten zabilzana ulertu egin behar da, eta, beraz, ondo esaten saiatu behar duzu, eta entzuleari ondo transmititu. Ingelesezt sentitzen naiz erosoan, musika gehiena ingelesez entzun dut beti eta naturalena iruditzen zait horrela abestea.

## Zein da jazzaren etorkizuna Euskal Herrian?

Proiektu interesgarri asko daude. Euskal Herrian jazzak presentzia handia dauka. Kontserbatorio bi ditugu: Iruñean eta Donostian. Gutxiengoa gara, baina gerozt eta gehiago gabiltza jazz proiektuetan. Durangokoaren antzeko Jam Session gehiago behar dira; jotzeko erraztasunak behar ditugu.

## Zer da jazzaz zuretzat?

Askatasuna eta sorkuntza da. Norberak bere erremintak ditu eta horrek libre egiten zaitu kantuan. Oso bizirik dagoen zerbait da jazz, entzuleek berdina sentiaraztea gustatuko litzaidake.

## Erreferentzia musikalen bat aipatzekotan?

Erreferente asko ditut, horien artean klasikoak asko eta estilo ezberdinetakoak. Gregory Porterren dotorezia, Ella Fitzgeralden swinga eta Freddie Mercury edo Aretha Franklinen eszenaratzea.

## Etorkizunerako, ze beste proiektu daukazu? Ze gogo duzu?

Kantatzetik bizitzea gustatuko litzaidake. Asko poztan naiz musikariek deitzen didatenean, izan ere, euren abestiak nik kantatu gura izatea opari bat da niretzat. Bestalde, nire konposizioekin hasteko ere badaukat gogo. Ezin hobea da proiektu propioetan aritzea, baina, ez dut hori bakarrik gura.

**MUSIKA • KAROLINA SUAREZ**

**XXII. Jam Sessiona egingo da gaur, 21:30ean, Plateruena Kafe Antzokian. Gonbidatuen artean, Irati Bilbao abeslaria izango dugu. Abesti propioak kantatuko ditu, eta bere proiektu pertsonalaren abiapuntua izango da. Aukera izaten duen gutzietan joaten da bat-batekoetara.**

## Zer ikusi ahaliko da gaur Plateruena Jam Sessionean?

Proiektu propioagaz nabilen lehen aldia da. Nireak diren letrak abestuko ditut, lehenengoz, eta horien aurkezpena izango da. Garrantzitsuenak Jam Sessiona da. Hori zabaltzeko gonbidatzen gaituzte, jendeak parte hartu dezan.

## Garrantzitsua al da Durangon Jam Sessionak antolatzea?

Jam Sessiona zer den jakiteko eta parte hartzeko aukera izateak badu garrantzia. Pedagogikoa da oso.

**Behin baino gehiagotan aritu zara antzokian. Eroso sentitzen zara bertan?**

Euskal Herriko toki gutxitan antolatzen dira bat-batekoak. Durangok horrelako antzoki ederra izatea eta Jam Sessionak edukitzea oso inportantea da. Bertako soinua paregabea da; beste askotan jo dut eta puntakoa da hau.

## Durango Bartolome Ertzillan hasi zenituen musika ikasketak. Nola hasi zinen kantuan?

Musika tresnen artean, zeharkako flauta aukeratu nuen. 16 urteren bueltan Pink Floyd bertsionatu genuen eskolan. Flauta jo behar nuen

nik, eta nola-hala, abesten amaitu nuen. Hortik, rock bertsio talde batean hasi nintzen, eta, gero, Sweet Margoten Mikel Nuñezegaz batera.

## Zenbait musika proiektutan zabilta.

## Zeinetan zaude erosoan?

Musika talde bakoitza oso ezberdina da: Gospel Six, Josu Bergara eta akorde txikiak, Sweet Margot eta Xahu. Estiloa edozein dela kantuan banabil, beti sentitzen naiz eroso.

## Hala ere, jazzean indarra hartzea gustatuko litzaidake.

## Azkenekoz, Ekurugaz aritu zinen eta antzokia bete zenuten. Zein da taldearen aurtengo asmoa?

Proiektuak aurrera darrai, eta azken kontzertua Zornotzan egin genuen. Ideia berriei bueltak ematen gabiltza orain.

## Zein izan da Musikenen ikasketak burutzeko bizi behar izan duzun prozesua?

Zorte handia izan nuen. Mikel Nuñez Sweet Margoteko pianistak teoria aldetik lagundu zidan, eta Carla Sevillak, kantuan. Prozesua

“Durangokoaren antzeko Jam Session gehiago behar dira; jotzeko erraztasunak behar ditugu”

Irati Bilbao, bere emanaldietako batean. Gorka Iraundegi





**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyexpe.com](http://www.zarateyexpe.com)



# "Antzerkigintza hau baztertu egiten den arren, guk hauxe dugu gustuko, formatu txikia eta hurbilekoa"

La Noche Boluda antzerki proposamenaren saio berria egongo da datorren egunean, 20:00etan, Plateruenean

**ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO**

Urrian ekin zioten La Noche Boludaren denboraldi berriari. Babesgune zuten Sapuetxe hormatu zutenetik, Plateruena kultur gunean topatu dute aterpea, eta bertan eskaintzen dute antzerki saio berezi hau, hilean behin, egunez. Aldaketa derrigorrezkoa izan den arren, hazteko aukera ere izan da. "Publiko gehiago sartzeko da", azaldu du Cecilia Paganini proiektuaren arduradunak. Ikusle gehiago sartu arren, artisten eta ikusleen arteko konexioa zaintzea da saioen gakoa. "Antzerkigintza mota hau baztertu egiten den arren, guk hauxe dugu gustuko, formatu txikia eta hurbilekoa", defendatu du.

Hurrengo saioa otsailaren 21ean izango da. Ohi bezala, denetari-ko diziplinak jorratzen dituzten aktoreek parte hartuko dute. La Wenpi, Endika (Dikothomia), Imanol Ituño, Quico Pugez, Trape-ruak, Nona, Gorka, eta Irati eta Sergio Jabaten arituko dira Gorka Gansok aurkeztuko duen saioan.

Umorea, musika eta zirkua egongo dira, besteak beste. "La Noche Boludara etortzen diren artistak oso eskuzabalak dira. Ez datoz diruagatik, proiektuarekiko duten

atxikipenagatik baizik. Badakite energia ona egoten dela eta bertako publikoa aparta dela", azaldu du koordinatzaileak. Proiektuak duen harreragaz pozik dago Paganini, ja-

rraitzeko gogotsu. "Egitarauan tartetxo bat egiteko eskatzen didate askok, eta hori oso atsegina da bere horretan. Etorri eguen ezberdin bat ezagutzera", egin du gonbita.



Cecilia Paganini.

## Durangaldeko hiru taldek parte hartuko dute Bizkaiko Taldekako Txapelketan

Hiru fase edukiko ditu txapelketak, eta finalera hiru talde igaroko dira. Lehenengo saioa otsailaren 24an izango da

**BERTSOLARITZA • A.M.**

Bizkaiko bertsolaritzaren ekosistema elikatzeke helburuagaz, Bizkaiko Taldekakoa antolatu du Bizkaiko Bertsotale Elkartek, beste edizio batez; 2017an antolatu zuten lehenengoa. Bertso eskolak, eta bertsolarien, zaleen, gai jartzaileen, epaileen eta antolatzaileen jarduna indartzea da helburua. Durangalde-

ko hiru taldek parte hartuko dute txapelketan: Durangoko eta Iurretako kideek osatzen duten Tronperrieta, Berrizko eta Elorrioko Miotako Bidelapurak eta Abadiñoko Koipelustré's taldeek. Hain zuzen ere, txapelketari hasiera emango dion saioan Tronperrietako kideek abestuko dute. Otsailaren 24an izango da saio hori, Algortan.



2017ko Bizkaiko Taldekakoaren irudi bat.

**Gai librea**

Josune Aranguren  
Zatika  
Filosofoa



### Demokraziaren kultura

Erabilera ohikoenean demokrazia hitza eskubideen bermea izendatzeko darabilgun arren, demokrazia kultur sistema osoa da. Zein eratarik, ba, gara demokrata sistema horretan egunerokoan? Etxean, kalean, lanean,... garatzen ditugun balio-jarrerak erakutsiko dute zein demokrata garen. Legaltasun demokratikoaren arabera jarduteko era horrek bizikidetzarako konpromiso morala behar du izan.

Klientelismoa kulturaren ondo sustrai hartua dugun inguruan, errazena urak dakarrena irenstea da. Horixe besterik ekarri ezin duela, irentsi beharrekoa delakoan,... Determinismoa? Jainkoak emana? Itsasgorak besterik ote dakarren ikusteko lepoa jiratu ere egin gabe. Laissez faire, laissez passer inguruak isilik elikatzen duen jarrera da.

Aldatu nahi duenak, ordea, ez du egiten urak dakarrena aztertzeke, baizik eta, justizia helmuga hartuta, justizia bera duelako xede. Greziarrek demokrazia asmatu zutenean argi zuten legeak zuela agintea, ez agintariak. Lege onak jakituriaren hazitik jaio dira eta elkartasun eta justiziarako bidean hazten dira.

Egunerokotasuna goitik behera antolatua ematen diguten era geldoan bizitzeak inoren iritziak norbere egitea ere badakar. Horiek ez dira jarrera neutro, inozente eta errugabeak. Makurkeria moral adierazteko era horiek guztiak, izatez, jarrera baten alde egitea da: autoritarismoa, intolerantzia, lotsagabekeria eta erantzukizun eta errespetu eza. Demokraziaren kultura eza.

<http://josunearanguren.blogspot.com/>

# hitz

liburudenda

artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

## #salduenak

**1<sup>o</sup>**

**BIZITZEA EZ AL DA OSO ARRISKUTSUA?**  
Joseba Sarrionandia  
Pamiela

**2<sup>o</sup>**

**FAKIRRAREN AHOTSA**  
Harkaitz Cano  
Susa

**3<sup>o</sup>**

**GURE OROITZAPENAK**  
Joseba Sarrionandia  
Elkar

# CERAMICAS MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCION

**ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA**

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727





Lurraren sorkuntzaren metafora bat da 'Oceanus'.

# Etxeko txikieneen gozamenerako, ozeano erraldoi bilakatuko da San Agustin, domekan

**ANTZERKIA • A.M.**

Baraka konpainiak itsaspeko bidaia bat eskaintzen du *Oceanus* antzezlan berriagaz. Etxeko txikienei zuzendutako bidaia hau San Agustin kulturgunekoek 1-4 urte bitarteko umeentzat eta gurasoentzat gomendatzen dute. Gaia eta *Oceanus* dira antzezlane-ko protagonistak; Gaia zain dago *Oceanus* bere haurra noiz jaioko, eta, itxaron bitartean, bere ama gogoratuko du. Itxaronaldian, euria egingo du kanpoaldean, eta, horren ondorioz, etxea arrainez,

**Sara Campbell aktorea sartuko da Gaia protagonistaren azalean, Barakaren lan berrian**

**Domekan, 'Oceanus' antzezlanaren hiru saio egongo dira: 12:00etan, 17:30ean eta 18:30ean**

medusez eta itsaspeko animaliez beteko zaio Gaiari. Sortzen diren harremanak eta egingo duten bidaia kontatzen du *Oceanus* antzezlanak. Funtsean, Lur planetaren sorrerari buruzko metafora bat da obra.

Sara Campbell aktorea da protagonista, eta 35 minututan ikusleak ozeanoan zehar gidatuko du, barbarik bako obran. Domekan eskainiko dute antzezlanak, hila- ren 17an, San Agustin kultur- gunean. Hiru saio izango dira: 12:00etan, 17:30ean eta 18:30ean.

# Ostalaritza gida

anboto

**Durango**



**KOBICA JATETXEA**  
San Ignazio, 8 - DURANGO  
**Tel.: 946 810 003**  
Egile sukaldaritza eta tradizionala.  
Menu bereziak eta karta.

**Durango**



**PLATERUENA** Kafe antzokia  
Landako etorbidea, 4 - DURANGO  
**Tel.: 946 030 300**  
www.plateruena.eus  
Egunero zabalik. Menu bereziak, egunerokoak, taldeentzakoak eta ospakizunak.

**Durango**



**URRATS**  
Juan Antonio Abasolo kalea, 3 - DURANGO  
**Tel.: 946 812 518**  
Gosariak, bokatak eta pintxoak. Bariku eta zapatu gauetan hanburgesak. Zapatu eta domeketan babarrunak enkarguz.

**Durango**



**GORA GORA**  
Arriluzea kalea, 2 - DURANGO  
**Tel.: 946 811 384**  
Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

**Abadiño**



**ABARKETERUENA**  
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO  
**Tel.: 944 657 790**  
Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

**Durango**



**MIKELDI TABERNA**  
Kalebarria, 7 - DURANGO  
**Tel.: 944 073 988**  
Alde zaharrean kokatuta. Pintxo gozoak eta giro alaiak.

**Durango**



**OLAJAUREGI JATETXEA**  
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO  
**Tel.: 946 200 864**  
www.olajauregi-jatetxea.com  
Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak eta ospakizunak. Egunero zabalik.

**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**





**Gaizka Juaristi**  
**Arrinda**  
Bizikletako jaitsierak  
egiten ditu  
**Abadiño | 1980**

## “Jaitsiera arina bada, 70 kilometro orduko abiadura gainditu dezakegu”

Bizikletan jaitsiera probak egiten ditu Gaizka Juaristik. Arin joateko gakoa "zoramen kontrolatuan" ei dago

**TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO**  
**Bizikletazalea da Gaizka Juaristi. Errepidean zein mendian dabil, errubera biren gainean beti. Mendiko bizikleta jaitsiera askotan parte hartu du. 16 urte zituela zaletu zen, eta 22 urte geroago ez du uzteko asmorik. Abiadura, teknika, fisikoa eta zoramen puntua uztartzen dituen kirol honek gero eta zale gehiago dituela dio.**

**Noiz hasi zinen bizikletan jaitsierak egiten?**

Gaztetan, 16 bat urte gaz. Osabak urte askoan egin izan ditu, 90eko hamarkadan hasita, eta beragatik hartu nuen afizioa. Gure etxean beti egon dira bizikletak.

**Errepideko txirrindularitzak ez zintuen erakarri?**

Egia esan, mendirako joera izan dut beti. Ibiltzen naiz errepidean, gustuko dut, baina entrenamendu moduan edo martxak egiteko. Errepideak alderdi fisikoa lantzen la-

guntzen du. Enduroan ere ibiltzen naiz. Bizikleta gainean gozatu egiten dut, modu batera zein bestera. **Zelakoak dira mendi jaitsieretako probak? Antza, jaitsierak ez ezik igoerak ere inportanteak dira.** Hala da. Rally baten antzerakoa da. Parte-hartzaile bakoitzak hainbat jatsiera egin behar ditu, denbora mugatu batean. Jaitsiera egin ostean, hurrengo irteera puntura sasoiz heldu behar duzu; bestela, penalizazioak daude. Ezin zara erlaxatu, eta apurka-apurka nekatzen zoaz. Azkenean, jaitsieretara neke puntu bategaz heltzeko egiten dute.

“**Gero eta toki gehiagotan daude entrenatzeko aukerak, eta afizioa ere handituz doa**”

Nekatuta, errazagoa da akatsak egitea. Denbora denak kontuan hartuta, lau bat orduko probak dira, 1.500 bat metroko desnibelekoak.

**Jaitsieretan, zenbateko abiaduran ibiltzen zarete?**

Tarte bakoitzak dituen ezaugarrien araberakoa da abiadura. Jaitsiera oso arina bada, 70 kilometro orduko abiadura gainditu dezakegu.

**Zoramen puntu bat behar da?**

Bai, baina zoramen kontrolatua. Izan ditut erorikoak, baina hogeitaz urtean ez dut hezurrik apurtu. Pitxadura txikiak izan ditut bakarrik. Besoko tendoi batean ebakuntza egin zidaten, baina ez eroriko bategatik. Zure muga ez gainditzea da kontua. Bestela, lurrera zoaz.

**Baina kontrolatu ezin diren faktoreak ere badaude. Ibilbidearen egoera, esaterako.**

Tarte bakoitza aurretik aztertzeke modua izaten dugu. Normalean, erorikoak nekearen ondorio dira.

**Beste lehiakideek baino segundo bat geroago frenatzean dago gakoa?**

Gakoetako bat da. Zenbat eta geroago frenatu, hobeto. Jausi barik, jakina. Abiaduraren eta kontrolaren arteko oreka bilatu behar da.

**Nola doa denboraldia?**

Urtarrilean hasi da. Hurrengo asteburuan, Ponferradara (Gaztela eta Leon) noa, Espainiako *Open* antzerako lasterketa batera. Lehenengo lasterketa da. Ondo entrenatu naiz eta ikusi egin beharko da zelan doan.

**Aurten, zeintzuk izango dituzu hitzordu nagusiak?**

Arrasaten Espainiako *Open*-eko lasterketa bat antolatuko dute irailarako. Gogotsu nago parte hartze-

ko. Beste proba batzuk ere baditut egutegian, baina laster aita izango naiz bigarren, eta ez dut hainbeste denbora izango.

**Urteak aurrera joan ahala abiadura galdu egiten da?**

Baietz esango nuke. Kirol hone-tarako, adinik onena 25-27 urte bitartekoa dela uste dut. Nire esperientziatik hori esan dezaket. Hortik aurrera, erorikoak izan eta gero kontuz ibili behar dela konturatzen zara eta ez da berdina.

**Alegia, ez daukazula gaztetako abiadura.**

Ez, baina orain gazteagotan baino esperientzia gehiago dut. Batak bestea konpentsatzen du.

**Garaipenak lortutakoa zara.**

Bai, pozik nago emaitzekin. Aur-reko denboraldian, Irisarriko probako *scratcha* irabazi nuen eta Arrasaten bigarren geratu nintzen nire kategorian. Hala ere, emaitzei baino, beste gauza batzuei balio gehiago ematen diet: ezagutu ditudan tokiei eta egin ditudan lagunei. Kirol honek asko eman dit.

**Badago bereziki gustatu zaizun probaren bat?**

Alpe d'Huez mendiko jaitsieran parte hartu nuen orain hamar bat urte, eta oso oroitzapen onak ditut. *Megavalanche* modalitateko proba da; hau da, 2.000 ziklista batera irteten dira, eta ez banan-banan. Glaziar batetik hasten da eta zati batean elur artean da ibilbidea. Ordubeteko jaitsiera luzea da. Igoera laburrak ere badaude eta pultsazioak topera jartzen dira! Fisiko ona behar da. Glaziarrean 90 kilometro orduko abiadura hartu dezakete aurrenekoek.

**Euskal Herrian badago jaitsieretarako afizioa ala familia txiki bat zarete?**

Durandaldean, EPR Egoian taldean nabil eta hamabost bat gara. Rally modalitatean, berriz, 30 bat lagun ibiliko gara. Gero eta afizio handiagoa dago.

**Non entrenatzen zarete?**

Mugarra inguruan, Urkiolan, Oromiñon, Arrasaten, Bergaran... gero eta toki gehiagotan daude entrenatzeko aukerak, eta afizioa handituz doa. Bizikleta elektriko-koen laguntzagaz, gero eta jende gehiago animatzen da kirol hau praktikatzera.



Gaizka Juaristi, bizikleta jaitsierako proba batean.



# Koadrilla bereko hamar gazte debutarik lider dagoen Elorrio Rugby Taldea indarberritu dute

2000. urtean jaiotakoak dira eta estreinako urtea dute nagusiekin; euren laguntzagaz, jokaturako dena irabazi du Elorriok



Elorriok oraindik ez du partidurik galdu liga osoan eta Euskal Ligako bigarren mailako liderra da..

**ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO**  
Kuadrilla bereko hamar elorriar gaztek estreinako denboraldia dute, aurtan, Elorrio Rugby Taldeko nagusiekin, eta bikain dabilta. Hauspo berria ekarri eta taldearen maila igo dute. Emaitzek ez diote gezurrik. Elorrio Euskal Ligako Bigarren Mailako liderra da, jokaturako partidu denak irabazita. Beñat Eguren, Endika Miguel, Ismael Bou-Ali, Julen Zengotita, Oier Azkarragaurizar, Martxelo Eriz, Niko Lohse, Oier Santos, Manex Basabe eta Aimar Ardanza 2000. urtean jaio ziren eta gazteta-

tik errugbian dabilta. "Nik neuk bederatzi urte daramatzat jokatzen", dio Aimar Ardanza gazteak. Hain zuzen, lagun kuadrilla bera

**"Esperientziadun jokalaria eta gazteak elkarregaz ondo moldatu garela da sekretua"**

errugbiaren inguruan sortu zela onartu du. Aurtan erakusten ari diren maila ez da sorpresa. Ikus-

ten zen belaunaldi berria indartsu zetorrela. Iaz, gazteen taldeagaz, Euskadiko azpitxapeldun geratu ziren. "Bazekiten atzetik gentozela eta komentatzen zen jokalaria kuadrilla on bat zetorrela. Dena emateko prest gaude", azaldu du Ardanzak. Liga amaitzeko jardunaldi biren faltan, Elorriok partidu denak irabazita amaitu dezake lehenengo fasea. "Bagenekien zerbait polita egiteko aukera geneukala, baina ez dut uste inork espero zuenik hain ondo ibiltzerik. Urteetan dabiltzan esperientziadun

jokalaria eta igo garen gazteak elkarregaz ondo moldatu garela da sekretua. Errezeta ona osatzen dugu", hausnartu du. Bigarren fasean, multzo bietako lau talderik onenak batuko dira eta eurretatik bi igoko dira Euskal Liga nagusira. Ardanza nahikotxo jokatzen ari da estreinako urtean. "Partidu bat kenduta, gainerako denetan titular izan naiz eta pozik nago", adierazi du. Nagusien liga kontaktatu gehiagokoa dela uste du. "Ez da erraza plakaketak egitea jende astunagoa dagoelako, baina, aizu, saiatzen gara!", esan du.



## Deniba Konarek Europako Judo Kopan parte hartuko du

**JUDO • J.D.**  
Deniba Konare durangarrak denboraldiko helburu nagusietakoa bete du Europako Judo Koparako sailkatuta. Fuengirolan (Malaga) izango da, zapatu honetan. Konaregaz batera, 36 herrialdetako beste 500 judoka batuko dira. Durangar gazteak urte hasiera bikainari esker —zilarrezko domina Vigon eta urrezkoa Avilesen— lortu du Europako Koparako sailkatzea. Ikastea eta esperientzia hartzea izango ditu helburu.

## Garaipenak igoera fasea segurtatuko dio Zornotza Saskibalo Taldeari

**SASKIBALOIA • J.D.**  
